

Bixente Serrano Izko

Kontuz solidaritatearekin

S

amurtasun goxoa gurea, sentimendu onak nagusitzen zaizkigunean. Bertzeak bertze, solidaritate sentipena: errukia, maitasuna, sinpatia, enpatia, tolerantzia, eskuzabaltasuna... Batik bat, solaskideekin horretaz aritzeko orduan. Baina askoz zailagoa izanik ere praktikara eramaterakoan, pasatu berri ditugun data hauek bereziki egokiak dira asmo berrietan hasteko, sentimendu onen ildoari helduz. Ea irakurleak hau leitu orduko oraindik ere gelditzen zaigun zertxobait horretatik, lausotuz joaten badoakigu ere.

Ez diet gorroto sentimendu onei. Solidaritatea kasu. Izan ere, itxuraz bederen badu zerikusirik solidaritateak maitasunarekin, eskuzabaltasunarekin, altruismoarekin, geurekoikeriaren ukazioarekin... Halere, ez dakit, susmoa dut solidaritateak ez ote dituen bere mugak izaten: ez soilik geure zilborretik harago so egiterakoan ditugun zailtasunetan, zerbait askoz sakonago batean baizik, ezintasun filosofiko batean ere. Ongi begiraturik, kontu bakarra ez da guk geuk mugak jartzen dizkio-gula solidaritateari geurekoikeria malapartatu bat dela kausa: solidaritate sentimenduak berak jartzen dizkigu mugak geuri, berez eta ezinbertzean.

Ez dago, ezin egon, solidaritate unibertsalik. Solidaritateak, beti, "gu" bat eratzen digu, zabalagoa edo murriztagoa, baina "gu" bat. Gugandik kanpo gelditzen dira bertze gutxi-asko, ezinen duena gure solidaritaterik erakarri, geuregan sartzen ez den heinean. Aingeru Epaltzak bere azkeneko liburuan, *Bezperaren bezperan* alegia, dioenarekin jokatz, hilotz guztiak hilotz zaizkigu, baina batzuek bertzeek baino hotzago uzten gaituzte.

Solidaritatearen mugen kontua da, zer erranik ez. Beraiek ohartu ala ez, solidaritatea eskatu ohi digute biktime guztiek. Sinpatia eta enpatiarik eskatzen digute. Ez ohi dute nahikoa gu euren eskubideen alde egotearekin, euren eskabideak geure egin ditzagun nahi dute. Baina biktime batzuekin bakarrik egin dezakegu horrelakorik. Egon, egon naiteke edozein biktimek jasandako eskubide urraketaen kontra; ezin naiteke egon, aldiz, biktimek



JOSU SANTESTEBAN

guztiek eskatzen duten guztiaren alde. Egon naiteke, eta banago egon, kasurako, Capbretoneko biktimek jasandakoaren kontra; baina ezin egon biktime horiek egiten ari ziren lanaren alde, eta ezin egon biktime horien solidarioekin ados. Egon naiteke, eta banago egon, kasurako ere, 18/98 sumario erraldoiaren biktimek jasandakoaren kontra, baina ez nago ados horren biktimekin guztiekin, horren biktime batzuek planteatzen duten guztiarekin: ez naiz horiekiko guztiekiko solidario.

Solidaritatetik harago eta honago ibili behar dugu, neure uste apalean: erran nahi baita, harago, nire eskabideen aurka jokatzen dutenen eskubideen alde jartzeraino ere; baina –honago– nire eskabideen aurka jokatzen dutenen asmoen kontra tematzen jarraitzeko eskubidea gordetzen: zure eskabideen kontra agian, baina beti ere zure eskubideen alde: solidaritatetik honago apika eskabideen arloan, solidaritatetik harago beti eskubideei dagokienez.



Ez eskatu solidaritatea guztioi, eskatu justizia, guztioi bai horixe! Solidario gutxi izanen duzula? 'Gutariko/Zuetariko' gutxi izanen duzula...? Ez da hori auzia: jende justu gehiagoren premia larrian zaude eta gaude. Eta gero gerokoa



Horratx! Mesedez, kontuz solidaritatearekin. Eska iezadazu, bai, zure eskubideen alde agertzea, eskatu kontuak niri gorrarena egiten badizut; baina ez eskatu ni zure alde agertzea, ez eskatu niri kontuak, aldi berean zure ideien kontra jokatzen jarraitzen badut ere. Ez eskatu solidaritatea guztioi, eskatu justizia, guztioi bai horixe! Solidario gutxi izanen duzula? "Gutariko/Zuetariko" gutxi izanen duzula...? Ez da hori auzia: jende justu gehiagoren premia larrian zaude eta gaude. Eta gero gerokoa. ■